

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1467

438/2017 EBAZPENA, martxoaren 10ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Miren Idoia Gurrutxaga Arriola andrea Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoaren lanpostua betetzeko izendatzen baita eta zerbitzu berezietan deklaritzen.

Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urtarrilaren 31ko 120/2017 Ebazpenaren bitartez egin zen (2017ko otsailaren 22ko EHAA, 37. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiak aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Miren Idoia Gurrutxaga Arriola andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Miren Idoia Gurruchaga Arriola andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Fakultatibo Espezialista ospitaleko larrialdietako medikua lanpostu funtzionalaren 3079 plazaren jabea dena, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Miren Idoia Gurrutxaga Arriola andrea Donostialdea Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2017ko martxoaren 13tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Miren Idoia Gurrutxaga Arriola andrea zerbitzu berezietan deklaritzea, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 10a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.